

Donostia handitzen ari da. Azken urteetan auzune asko sortu dira: Berio, Miramon... Beste hainbat, berriz, sortzeaz dira: Loiolako erribera, Morlans... Ildo horretatik, Udal Gobernu Batzordeak, Arantzadi elkarteak kale berriak bataiatzeko proposatutako izendegia onartu du. Izen gehienak kulturarekin edo hiriarekin estu lotutako pertsonaiak dira. Guztira, 50 izen bildu dira. Ezagutu ditzagun Donostiako kaleetako protagonista berriak.

Ainhoa Irazu

Arantzadikoproposatutako izendegian 50 bat izen bildu dira. Horietatik 15 inguru izen toponimikoak dira: Leire plaza, Loiolako biribilgunea, Errota Berri Arbizketa eta Marbil parkeak, Bartzelonako hiribidea, Loiolako erribera... "*Josu Teilabide et-noloak proposatutako izenak dira. Josu bera lan asko eginikoa da esparru horretan, eta inork baino hobeto ezagutzen du Donostialdeko toponimia. Horregatik, Udalak bere proposamenak onartu ohi ditu*", jakinarazi digu



Kalez kale...



...izenez izen

Argazkian Errota Berri, Loiolako garai bateko errota. Ibaiertzean eraikitzeak den auzuneko plaza bati izena emango ditzate.

Mikel Andonegi Hirigintza Saileko arkitektoak.

Errota Berri parkea Loiolako erriberan eraikitzeak den auzunean egongo da. Loiolako errotaren lehen udal agiria 1610ekoa da. Errota Villalcazar kontearena izan zen eta Pedro Gres eta Mariabelez de Santander bizi izan ziren bertan. 1953ko uholdeen eraginez, Errota Berri kalte larriak pairatu zituen. Mareaz baliatutako zen Donostiako errota bakarra izan zen. Gaur egun arte gorde den eraikinaren arrasto bakarra Urumea ibai-ko harresian ikus daitekeen harria da.

Marbil parkea, berriz, Igeldomendi auzunean egongo da. Parkeak Ibaetako Marbil baserriari zor dio izena. Aranegi alargunarena izan zen baserria, eta diotenez, baserri inguruak garai batean donostiar bikote askoren zirritoki izan ziren. Toki lasaia zen eta gainera, bertatik Donosti osoa ikus zitekeen. Marbil hutsik

geratu zen joan den mendean eta ondoren, eraitsi egin zuten. Antza denez, egitura bitxiko zurezko baserria zen.

Mugitegi, Ibaetak izango duen kale berriak, bertan zutik dirauen baserriaren izena hartu du. Bertako jabeek, oraindik ere, nekazaritzan darraite. Adituen arabera, baserria XVII. mendean eraiki zen. Karlistadetan suntsitu zuten, baina berriro jaso zuten gerra ondoren. Ondoa, beste baserri bat zegoen: Ardiexor oraindik ere zutik dirauena.

Arbizketa parkea Antigua auzoan egongo da. Parkeak, izen bereko soroari zor dio izena, hau da, egungo Haizeen Orratza eta Igeldoko funikularraren arteko lursailari. Garai batean, lur sail horretan hainbat baserri zeuden: Arroka Haundi, Arroka Txiki eta Eleutegi, besteak beste. Gainera, Arbizketa izeneko etxea zegoen, XIX. mendean sute batek kiskalia.



Rosario Artola
(Donostia, 1869-1950)

Ramon Artolaren alaba eta Pepe Artolaren arreba, Rosariok kale bat izango du Morlansen eraikitzekoa den auzune berrian. Rosario Santa Maria elizan baitaiatu zuten. Aitak eta anaiak bezala, Artolatarren alaba gazteenak idazle sena zuen, eta garai hartan emakume idazle gutxi zegoen arren, familia tradizioa bere egin zuen. Bere lehen olerkia "Nere guitarchoari", Euskal-Erria aldizkarian argitaratu zen 1889an. Azkena, berriz, 1918koa da. Adituen arabera, Rosariok bidea zabaldu zien Donostiako emakume idazleei. Bere idatzi gehienak erlijio gaiei buruzkoak dira.

Karmen Resines eta Josefina Oloriz

Karmen Resines eta Josefina Oloriz Donostiako Udal zinegotziak izan ziren. 1925ean hasi ziren lan horretan, Jose Elosegi alkatearen agintaldian. Garai horretan, zinegotzien zerrendan 18 gizonetzko zeuden eta bi emakumezko besterik ez. Zinegotzior izendapena historikoa izan zen, izan ere, ordura arte ez zen emakumerik izan Hego Euskal Herriko udaletan ordezkaturik. Ezta Espainiakoe-tan ere. Karmen, gainera, al-kateorde izendatu zuen Jose A. Begiristain orduko alkateak 1929an. Josefina Oloriz, bestalde, maistra izan zen. Emakumeek plaza bat izango dute Benta Berrin.



Paloma Miranda
(Donostia, 1943-1999)

Donostian jaio zen goi mailako familia batean. Mirandak arte eta historia ikasketak egin zituen Bartzelonako Massana arte eskolan eta Deustuko Unibertsitatean. Historian doktorea, inkisizioak Euskal Herrian izandako ondorioak ikertu zituen. Besteak beste, sorginkeria erritotak izan zituen aztergai. Zumalakarregi Museoaren sorkuntzan lagundu zuen eta bertako arte aholkularia izendatu zuten. Paloma hainbat komunikabidetan kolaboratzaile izan zen: El Mundo, Emakunde aldizkaria, Egin eta Gara. 1988an, Zarautzen Maria Maeztu Forum Feminista sortzeko bilkuran parte hartu zuen. Loiolako kale batek haren izena hartuko du.




Wilhem Von Humboldt (Postdam 1767-Tegel 1835)

Von Humboldt Euskal Herriarekin izandako harremanagatik ezaguna da gehienbat, alemaniarrek protagonismo handia izan zuten Europako politikan eta kultur eta zientzia munduan. 1789an, Frantziako Iraultzarak Parisen sortutako Batzar Nazionalan parte hartu zuen. 1801ean Euskal Herriara etorri zen eta euskararekin uleratuta, gure hizkuntza ikertzeari ekin zion. Humboldt-en ustez, euskara Europako hizkuntza zaharrena

zen. Euskara goraitatu zuen, eta gure hizkuntzari buruzko liburu ugari idatzi zituen. Alemaniarren ohorezko kalea Loiolan eraikiko da.

Dulce Maria Loinaz (Habana, 1903-1997)

Kuban jaio arren, Beasaino Loinaztarren oinordekoa zen Dulce Maria. Idazlea, eta bere arbasoen herriari buruz hainbat pasarte idatzi zituen. "Beasainen sustraiak, maitasuna eta izena dut", esan zuen. Euskal Herria erabat maite zuen eta sarritan etorri ohi zen Donostiara. Zuzenbide ikasketak egin




Miguel Pelay Orozko (Donostia, 1913-1998)

Miguel Pelay Orozko Venezuelan bizi izan zen hainbat urtez. Donostiara etorri eta hainbat komunikabidetan idazten hasi zen, euskaraz zein gaztelaniaz: Zeruko Argia, Goiz Argi, Jakin, Oarso, Aranzazu, Gernika"... Atzerriko prentsan ere aritu zen: Euzkadi eta Journal of Basque Studies, besteak beste. Hiru eleberri idatzi zituen: "Los Pelotaris", "Chopereña el contrabandista" eta "Las instituciones de Sotero Bidarte". Horrez gain, hainbat saiakera eta Jorge Oteiza eskultorea eta Juan Ajuriagerra EAJko kideari buruzko bibliografiak egin zituen. Pio Barojaren lagunmina, Miramonen egitekoak diren etxe berrietako kale batek eraman-godu bere izena.



Angela Figuera (Bilbo 1902-1984)

Bilboko olerkigilea filosofia ikasketak egin eta irakaslea izan zen. 1948an argitaratu zuen bere lehen liburua "Mujer de barro". Figuera feminista zen eta txiroei eta giza talde baztertuei buruz idatzi ohi zuen. Jakina, bere liburuen artean ez da falta emakumeei buruzkorik: "Mujeres de mercado", "Rebellion", "Canto a la madre de familia", besteak beste. Bilboko Gabriela Mistral deitu ohi zioten. Madrilen hil zen 1984ko apirilaren 2an. Angelak plaza bat izango du Zapatariko etxe berrietan.



koa, bidaiari amorratua zen. Kubako Hizkuntza Akademiako kidea, 1986an bertako Literatura Sari Nazionala erdietsi zuen. 1992an Cervantes Saria eman zioten Madrilen. Bere idazteko erak jarraitzaile ugari izan zituen. Miramongo auzo berriak izango du gogoan Dulce Maria.

Jesus Maria Alkain (Donostia, 1922-2001)

Jesus Maria Alkain 1922ko urtarrilaren 27an jaio zen Antiguako Arantzazuko Andre Mariaren auzunean. Asko maite


zuen auzoa eta bertan bizi izan zen bere emazte Mari Carmen Dominguezekin ezkondu arte. Ekonomia Zientzietan lizentziatua, Donostiako alkate izan zen 1979tik 1983ra (EAJ). Pakeako zuzendari izandakoa, hainbat kultur elkartetako kide izan zen, hala nola, Eusko Ikaskuntza eta Jose Miguel Barandiaran Fundazioa. Aurtengo uztailaren 1ean hil zen 79 urte zituela. Loiolako erriberan eraikitzekoa da haren omenezko plaza.

Otamendi anaiak

Jose Otamendi astronomo, geografo

Antonio Maria Labaien (Tolosa, 1898- 1999)

Tolosar antzerkigile eta Euskaltzaindiako kideak, 1920n Donostiako Udalaren saria jaso zuen "Txinparta buruzagi" bere antzezlanarengatik. 1930eko Santotomasetan berriz ere saritua izan zen "Euskal Eguna" komediari esker. 1933an Tolosako alkate izendatu zuten. Orixe eta Lizardiren laguna, 1932an "Antzerti" aldizkaria plazaratu zuen. Gerra Zibilean Saran bizi izan zen, errefuxiatuta. Etxeratu zenean idazten jarraitu zuen. Labaienek idatzitako liburuen zerrenda luzea da: "Jokua ez da errenta", "Bai esalea, ez esalea", "Galtzaundi"... Hainbat goitizen erabili zituen: Ibalan, Matxingorri eta Etxekorena, besteak beste. Haren omenezko kalea Morlansen izango da.



eta matematiko donostiarren semeak 1897an Madrilera bizitzera joan ziren. Guztiek lan asko egin zuten arkitektura munduan. Joakinek Madrilgo Komunikazioen Jauregia eta Cuatro Caminos auzoa eraiki zituen. Miguelek bertako metroa egin zuen. Jose Maria eta Julian, berriz, Madrilgo hainbat eraikin enblematikoren egileak izan ziren, hala nola, Madrilgo lehen futbol estadioa eta Gran Via kaleko Lope de Vega eraikina. 1947. eta 1953. urte bitartean, Espainiako lehen etxeorratza eraiki zuten: España dorrea. Otamendi anaien kalea Loiolan eraikiko da.

«Irlandatik eta Quebecetik asko ikas dezakegu»

Jesus Torquemada kazetari donostiarra aski ezaguna da. Nazioarteko aditua, azken boladan luze eta zabal jardun du joan den iraileko atentatuek piztutako krisialdiaz eta gerraz. Torquemada, hala ere, hamaika saltsatako perexila da. Jazzaldiaren komunikazio bulegoan laguntzen du, esaterako, eta Zinemaldiaren katalogoaz arduratzen da. Oraingoan, ordea, nazioarteko egoera aztertzeko jo du berarengana.

Igor Usabiaga

New Yorkeko eta Washingtongo atentatuak Osama Bin Ladeni egotzi dizkiote ia-ia denek. Bin Ladenek, ordea, ez ditu bere gain hartu. Erasoetan estaturen bat nahasita egon zitekeela ere aipatu izan da. Nork egin zituen irailaren 11ko atentatuak?

Arraroa egiten zait pertsona bakar batek hau dena antolatzea. Txetxenian edo Aljerian borrokan ibilitako arabiar jatorriko pertsoenez osatutako "Nazioarteko islamista" bat dagoela ematen du eta Bin Laden buruzagi aukeratu dutela. Bin Laden atentatuon erantzulea izatea sinisgarria da, talde honen babesa duen heinean, antolakuntza eta bitartekoak ditu eta.

Honenbestekoa al da islamiar integrismoaren arriskua? Sarraski handiak

eragin al ditzakete, arma nuklearrak edo biologikoak erabilita, azken boladan esaten ari den bezala?

**Integrismoaren
arriskua
neurrigabe
puztu
da**

Integrista musulmanak islamiar munduarentzat dira arrikutsuak, herrialde haietan nahasmena sor dezakete eta. Gu ere kaltetuak izan gaitezke, herrialde arabiarren esku baitago petrolio. Armei dagokienez, edonork ez du arma nuklearrak lortzerik; bonba atomikoa egiteko, estatu baten pareko antolakuntza bat behar da. Egia da, hala ere, "bigarren eskuko" bonba bat lor dezaketela, baina ez da hain erraza. Mehatxua neurrigabe puztu dela uste dut.

Zenbaitek diotenez, iraileko atentatuak EEBBek Ekialde Hurbilean eta oro har, mundu islamiarrean, duten politikarekin lotuta daude. Palestinako gatazka adibidetzat hartu da. Bertako bake prozesua ez aurrera ez atzera dago...

Palestina oso garrantzitsua da mundu